

EDARI NATURALA ETA EDERRA

Bizkaiko sagardogileek sagardo ederra ekoitzi dute. Gozoa, freskoa, usain onekoa eta edanerraza. 2015eko uztia ona izan da, eta pozik dira ekoitzitako kopuruarekin.

Botilatik dasta daitekeen sagardoa ona da, Jose Antonio Zamalloa Zornotzako Uxarte sagardotegiko arduradunak azaldu duenez. «Txotx garaiaren hasierako ezaugarri berak ditu 2015eko uztako sagardoak; azken batean, botilan ez da asko aldatzen. Itxura oneko sagardoa da, erraz edatekoa, usain onekoa eta freskoa; sagardo ona, azken batean».

Gozoa eta leuna, oro har. «Upategi batean aukera asko dago, eta sagardo guztiek ez dituzte ezaugarri berdinak. Hartzidurak modu naturalean egiten dira, eta hainbat sagardo mota daude upategi bakoitzean, baina, orokorrean bai, sagardo gozoak dira».

Bizkaiko sagardogileek 2016ko txotx garaiaren aurkezpena Uxarte sagardotegian egin zuten, urtarrean, eta 180.000 litro ekoitzi zituztela jakinarazi zuten, aurreko urtean baino 30.000 litro gehiago. Bizkaiko sagardogileak pozik dira aurtengo ekoizpenarekin. «Uztia ona izan zen lazkoa, eta ekoitzitako sagardo kantitatea ere ona izan da. Orain,

urtean zehar modu egokian saldu behar da, eta horretan gabilitza».

Aurtengo txotx garaia ona izan dela dio Zamalloak. «Ongi joan da, lazkoa baino hobeto. Orain dela urte batzuk, krisia zela eta ez zela, alarma batzuk piztu ziren, baina aurtengo txotx garaiarekin pozik gaude. Urtea oraindik luzea da, eta ikusi behar da nola ama-

«Edari gomendagarria da sagardoa, eta, txotx garaiaren ez ezik, uda partean ere kontsumitzeko ederra»

JOSE ANTONIO ZAMALLOA
Uxarte sagardotegiko arduraduna

tzen den, baina uste dut ez dela txarra izango».

Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak kideek sagardo naturala ekoitzen dute, hemengo sagarra-ekin. «Produktu edo edari gomendagarria da sagardoa, eta, txotx garaiaren ez ezik, uda partean ere kontsumitzeko ederra».

@ Informazio gehiago:
www.bizkaikosagardoa.eus



Hainbat lagun sagardoa dastatzen, Bilbon. BIZKAIKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA



Jose Antonio Zamalloa, Zornotzako Uxarte sagardotegiko arduraduna. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



Bizkaiko
sagardoaren
alde egin,
anima zaitez

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Gernika

Leke-Erdi Sagardoa
Juan Amallobieta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Gallia

Etxebarria Sagardoa
Iñaki Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Gutxo

Eguskiza Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Iturburuena

Laneke Koop
Leartibal Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Isueta

Tracola Sagardoa
Sonia Isasi Arrieta
Tel.: 94 681 60 44

Lezama

Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguen Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Martina-Xemein

Arpe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Olivia

Kandi Sagardoa
Sat Kandi
Tel.: 94 625 33 82

Uxarte

Uxarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15



bizkaiko
sagardogileak